




Antibiotikoak: bai ala ez?

J. Agirre



Segun.


Antibiotikoak edozein adinetan ematen dira, eta horrela eman daitezke; baita jaioberrietan ere. Garrantzitsuena honako hau da: ea antibiotikoak ematea benetan prezioa ote den. Arau orokor gisa, birusek sortutako gaitzetan (eta kontu egin katarro asko eta asko umetan birikoak direla) ez litzateke antibiotikorik eman behar; birusengan ez baitute inolako eragin-kortasunik. Umea osasuntsu bada-go, eta sintomatologia arina bada, botikak sintomen kontra bideratuko dira (analgesikoak minaren kontra, antitermikoak sukarra jaisteko, eztulkontrakoak), umearen defentsa naturalak aski direlako. Bakterioengatiko konplikazioak agertzen direnean (amigdalitisa, otitisa, bronkitisa, ...) baino ez dira errezeratuko antibiotikoak. Ezinbestekoa da dosi egokia gutxienik 7-10 egunetan mantentzea, germena erabat suntsitzeko eta gaixoberritzeak ebiltzeko. Inoiz ez da antibiotikorik garaia baino lehen kendu behar, sukarra desagertu delako adibidez.


Alexander Fleming hartzen da antibiotikoen aitatzat, 1928. urtean penizilina aurkitu zuenez gero. Eta ordudanik orain arte, ikerkuntza biomedikoak antibiotiko berriak aurkitzen segitzen du, jo eta ke, beren eraginkortasuna eta segurtasuna hobetuz doazelarik.

Botika hauekin milioika heriotza ebitatu dira mundu osoan (horietako asko eta asko gaur egun ia hutsalak iruditzen zaizkigun gaitzek sortuak; gripeak, esate baterako). Beste botika asko bezala, *antibiotikoak berez ez dira arriskutsuak*, medikuaren aginduei jarraituz hartzen badira bederen.

Hain erabiliak direnez gero, jende

guztiak daki hainbat topiko antibiotikoen alde onak eta txarrak direla eta. Baina egia ote dira topiko horiek guztiak?





batzuekiko ere alergikoa denik. Penizilinaren taldekoak (anoxizilinak, anpizilinak, etab.) eta zefalosporinak dira alergía maizenik sortarazten duten antibiotikoak.

Erantzun alergikoaren sintomak oso desberdinak izan daitezke. Arinak izan daitezke (urdaileko moles-tiak, larruazaleko suminkortasuna), baina baita oso serioak ere. Normalean alergía ez da antibiotikoarekin edukitako lehen kontaktuan agertzen; ondorengo infekzio-aren batean baizik (berriro ere ematen denean).

Antibiotikoak hartzen ari eta erreakzio arraroren bat somatu bezain pronto, medikuarengana joan beharra dago. Ez dakigu alergiak umetan pertsona helduetan baino maizago agertzen direnik; ezta alderantzizkorik ere.

* Tratamendua ez da eten behar, sintomak desagertu arren

Egia Gezurra

Oso garrantzitsua da medikuaren aginduak ahalik eta zorrotzen betetzea: medikuak esango du zenbat denboran hartu behar diren, medikazioa noiz eten behar den eta baita botika hartzeko modurik egokiena zein den ere.

Askotan egiten den akatsa, hobe-kuntza nabaritu eta gaixotasunaren sintomak (batzuk edo gehi-

entsuenak) desagertzen direnean tratamendua etetea da.

* Gutxienez bost egunetan, jarreraian, hartu behar dira

Egia Gezurra

Edo baita denbora luzeagoan ere. Medikuek tratamendua egun gehiagotan egitea agintzen ez badu, arau orokorra antibiotikoak zortzi-hamar egunetan hartzea da. Grabeak ez diren kasu gehientsuenean, denboraldi horretan tratamendua gai da infekzioa gainditzeko. Zergatik epe hori?

a) Bakterio-infekzioa sortzen denean germenak ikaragarri azkar ugaltzen direlako.

b) Botikak infekzioaren fukuraino iristeko denbora-puska bat behar duelako. Eta foku hori sortuz doan bakterio-mordoa inhibititu eta suntsitzeko, antibiotikoak egun batzuk behar ditu.

* Hesteetako flora ere honda dezakete

Egia Gezurra

Hori tratamendu luzeetan eta oso antibiotiko gogorrek erabiltzen direnean gertatzen da batipat. Normalean ohizko infekzioak (bronkitisak, pixekoak, eztarrikoak, etab.)

* Antibiotikoak hartzeak jipoi handia ematen du

Egia Gezurra

Hain zabaldua dagoen uste hau ez da batere egia. Antibiotikoek ez dituzte gorputzaren defentsak xahutzen edo ahultzen; infekzioa baita ondorio horien erantzulea. Hezur-muinean diharduten oso antibiotiko gutxi eta jakin batzuek ahulduko lukete, baina gaur egun ez dira erabiltzen.

* Pertsona batzuk antibiotikoekiko alergikoak dira

Egia Gezurra

Polen edo lorautsa, akaroak (hau-tsekoak), esnea eta beste hainbat substantziarekiko pertsona batzuk alergikoak diren bezalaxe, antibiotikoek ere, berez kaltegarriak izan ez arren, erreakzio alergikoak sor ditzakete, beti ere gorputzak botika horiekin kontaktua izan ondoren.

Baina antibiotiko batekiko alergikoa izateak ez du esan nahi beste

Nola eta noiz hartu antibiotikoak

Medikuak baino ezin du agindu antibiotikoak hartzea eta horiek hartzeko modua: ahotik (pastilak, sobreak, jarabeak), ipurditik (supositorioak) edota muskulubarnetik (injekzioak).

Antibiotikoaren infekzioa sendatzeko eraginkortasuna faktore askoren menpe dago: infekzio horretarako egokia zein antibiotiko den; zein bidetatik ematen den; eta azkenik, dosifikazio-pautak eta tratamenduaren iraupena dira faktore horiek.

Azken puntu hau oso garrantzitsua da. Zorrotz-zorrotz behar da errespetatu medikuak agindutako epea. Gauza bera, adibidez, zortzi orduetik behin hartu behar dela esaten badu. Dena den, gehiegikeriarik egin gabe: ez jarri adibidez iratzargailua, gauerdian hartu behar duzula eta. Egokitu ezazu zure bizimodu normalera. Ez dute derrigor otorduekin kointziditu behar eta ez dago botikarekin batera ezer solidorik hartu beharrik ere, otorduen artean hartu behar direnean (medikuak kontrakorik esaten ez badu, noski).



tratatzeko dosiekin ez da horrelakorik gertatzen. Baina gorakorik edo beherakorik agertuz gero, komeni da medikuari kontsulta egitea.

* Arriskutsuak dira, beraz ez da komeni sarritan hartzea

Egia Gezurra

Inoiz ez dira arriskutsuak, medikuak behar bezala agindu baldin baditu. Norberak bere buruari autoerrezetatuz gero, orduan bai, arriskutsuak izan daitezke. Automedikazioaren aurreneko arriskua porrot terapeutikoa litzateke; alegia, gaitza ez sendatzea. Beste bat, gaizki erabiliz gero infekzio seriorena bat estaltzea (adibidez, faringitis batek azkenean konplikazio larriagoren bat, meningitisa, ekartzea).

Horregatik, inoiz ez dira hartu behar medikuak agindu ez baditu; medikua baita kasu bakoitzerako egokiena zein den eta nola hartu behar den erabakitzeke a proposena.

Bestalde, egia da antibiotikoak oso maiz hartzea ez dela komeni, erresistentziak ager daitezkeelako eta antibiotikoak infekzioa sendatzeko eraginkortasuna galduko lukeelako.

* Sarritan hartzen badira, eraginkortasuna galtzen dute

Egia Gezurra

Bakterioak dira infekzioa sortzen duten mikroorganismo patogenoak, eta bakterioen kasuan erabiltzen dira antibiotikoak.

Baina bakterioek badute defentsa-mekanismo bat, erresistentzia esaten zaiona, antibiotikoek eraso egin ez diezaien. Eta kontaktuan antibiotiko berbera bakterioekin zenbat eta maizago jarri, errazago ikasiko dute hauek botika ezagutzen, eta beren defentsa-mekanismoa martxan jarriko dute hari aurre egiteko, eta, beraz, antibiotikoak eraginkortasuna galduko du.


Horra hor antibiotikoak nolana ez erabiltzeko beste arrazoi bat. Hobe aurretik medikuari gal-

OINARRIZKO LIBURUTEGIA

OINARRIZKO LIBURUTEGIA

GIZAKIAREN TXIMINO- -JATORRIA

(Hominizazioaren ibilbide luzea)



9. Sorginak eta Euskal Herria
10. Roboten mundu kezagarria
11. Antzinako Egipton barrena
12. Zenoziokoaren ugaztun bitxiak
13. Jugoslavia eta ekialdeko beste herriak
14. Ovniak: misterio ala errealitate?
15. Ametsen interpretazioa
16. Gizakiaren tximino-jatorria



Harpidedun egin zaitez gure liburuak merkeago lortuz.

HARPIDETZA-TXARTELA

Izen-deiturak _____
 Helbidea _____ Tel. _____
 Herria _____ Post. Kod. _____
 Bankua/Aurrezki Kutxa _____
 Sukurtsala _____
 Kontu-zenbakia _____

GAIK argitaldaria / S. Bartolome, 36-behea / Tel. 471304/
20007 - DONOSTIA



detzea; berak faktore guzti horiek kontutan hartuko baititu.

* Antibiotikoak dira marrantaren kontrako erremedio onena

Egia Gezurra

Normalean marranta (hoztura) birusek sortzen dute eta antibiotikoak bakterioengatiko infekzioetan baino ez dira eraginkor. Gauza beretsua gertatzen da gripearekin. Dena den,

Teorian, horrela da. Ikusi dugunez, gripea eta marranta edo hoztura gehienak infekzio birikoak dira, bakar-bakarrik sendatzen direnak; antibiotikorik gabe, alegia. Zenbait aholku edo gomendio, oso ezagunak, bete behar dira: kontuz hotzarekin, ohean igaro egun batzuk behar izanez gero, etab. Normalean antipiretikoak eta analgesikoak ematen dira sukarra jaisteko eta ondoeza arintzeko.

posible da antibiotikoak kalte egitea. Oso antibiotiko potenteek, tratamendu luzeetan ere sor dezakete horrelako molestiarik.

* Haurdunei ez ematea hobe, fetuari kalte ez egiteko

Egia Gezurra

Emakume haurdun batek infekzioen bat eduki eta behar bezala tratatzen ez bada, arriskutan dago bera, eta fetua ere bai. Ginekologoa da kasu bakoitza aztertu eta infekzioa sendatzeko tratamendurik egokiena erabakitzeko espezialista. Praktikak erakutsi duenez, gaur egun badaude eraginkor eta ez-teratogeno diren antibiotikoak (penizilinen taldekoak eta zefalosporinak bereziki), hau da, infekzioa sendatu eta fetuari inolako malformazio edo akatsik ez dakarkiotenak.

* Emakumeengan mikosiak errazago agertzen dira antibiotikoen

Egia Gezurra

Espektro zabaleko antibiotikoak ematen direnean (hau da, germen-kopuru handi baten kontra aritzeko gai direnak) eta denboraldi luzean hartzen badira, baginako floran garbiketa ederra egin daiteke eta horren ondorioz mikosia agertu, h.d. ondoengatiko infekzioa. Beraz, emakume batek, antibiotikoak hartzen ari dela, genitaletan azkure handia eta fluxu ugari edukiko balu, medikuarengana joatea komeni da, tratamenduz aldatzeko.

medikuak batzuetan antibiotikoak errezeta ditzake gripe edo katarroekin batera ager daitezkeen bakterio-infekzioak prebenitu edo sendatzeko (faringitisak, amigdalitisak eta bestelako konplikazio serioagoak).

* Negu parteko gaitzik gehienak antibiotikorik gabe

Egia Gezurra

* Antibiotikoak oso kaltegarriak dira urdailarentzat

Egia Gezurra

Ahotik emandako antibiotiko batek ez dauka zertan urdaila hondatu, gaixoak aurretik urdaileko arazorik ez badauka eta medikuaren aginduei jarraituz hartzen bada behintzat. Ultzeraren bat edota urdaileko bestelako gaitzen bat duenari oso

doengatiko infekzioa. Beraz, emakume batek, antibiotikoak hartzen ari dela, genitaletan azkure handia eta fluxu ugari edukiko balu, medikuarengana joatea komeni da, tratamenduz aldatzeko.